


Belartzetik ihartzera

Udaberri eta udako jai-ohiturak



**EUSKARA
MINTZAGAI**

8

EUSKARA MINTZAGAI bildumak gure hizkuntzaren sustrai, enbor, adar eta fruituak ondo asko aztertu nahi ditu eta euskaltzale guztiei ikerlan monografikoetan eskaini. Milaka urte dituen mintzaira honen jatorria, bilakaera, osagaiak, kanpora eta barrura izandako harremanak, euskal jendeak sortutako kultur adierazpideak... Halakoak eta beste gertutik eta modu arin batean ezagutzeko prest dagoen horrek badu zer irakurri, zer ikasi. Aldian-aldian **HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAK** argitara emango dituen liburuxka hauek gure hizkuntza, gure herria, geure burua hobeto ezagutzeko aukera emango digute.

Egutegiaren oinarrizko unitatea urtea da, urteak ziklo bat osatzen du eta hala goaz urteak metatzen. Urtearen barruan ere, ibilbide bera egiten da urtero-urtero, urtaro bakoitzari dagozkion lanak eta jaien segidak behin eta berriz errepikatzen direlako. Urtaroetako lanen egutegia gizarte nekazariarekin lotuta dago, soroetan garai bakoitzean zer landu edo zer batu behar zen, horretarako lanak ondo finkatuta. Jaiak, ostera, nekazaritzako lanen arabera ez ezik, gure inguruan urte liturgiko katolikoaren arabera ere ordenatzen dira.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



Belartzetik ihartzera

Udaberri eta udako jai-ohiturak



Igone Etxebarria



LABAYRU IKASTEGIA

Belartzetik ihartzera

Udaberri eta udako jai-ohiturak

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2012ko irailean

Ale kopurua: 1.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Diseinua eta azala: Antton Olariaga

Maketazioa: Antton Olariaga

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: www.euskadi.net

Inprimaketa: Estudios Gráficos Zure, S. A.

ISBN: 978-84-457-3164-2

Lege gordailua: VI 406-2012

Euskara mintzagai bildumaren ale honek *Belartzetik ihartzera. Udaberri eta udako jai-ohiturak* du izenburu. Azpтитuluak adierazten du hoberen zertaz ari garen, udaberri eta udako jai-ohiturei buruz hain zuzen. Horrela jarri dio izena Igone Etxebarria Labayru Ikastegiko ikertzaileak bilduma honetako zortzigarren aleari.

Liburuan udaberriko eta udako esaerak, nekazaritza munduko ohiturak eta zenbait errito jasotzen dira. Lan honen bitartez jakingo dugu kukuak kantatzen duen bitartean irauten duela udaberriak, edo udaberria urtaro oparoa dela herriko festetan. Martxoan hasi eta ekainera bitartean doan urtaro honetan sartzen dira Aste Santua eta Pazkoa, bai eta Gorpuzti eguna ere. Bestalde, hor dugu maiatza, oso aberatsa da esaeretan (“Maiatzeko ogia, urte guztiko ogia” edo “Maiatz pardo, ogi ta ardo; maiatz hotz, ez gari, ez agotz”) eta ondoren, ekaina, urteko egunik luzeena duen hilabetea.

Udari dagokionez, ekaineko festak eta San Joanen inguruko kantak eta esaerak jasota daude bilduman, bai eta beste zenbait ohitura ere. Eta, festa eta ohituren artean, garai bateko erromeriak, gaur egunera arte iraun duten asto-probak, dantza-jaialdiak, sukaldaritza-lehiaketak eta abar.

Liburuan, beraz, garai bateko ohitura erlijiosoak ageri dira eta, horrekin batera, euskaldunen antzinako errito eta esaerak, maiz urteko zikloei lotuak. Euskara bera tresna ezin hobea da historian barrena murgiltzeko, Caro Barojak, Jimeno Juriok eta beste batzuek aspaldi frogatu zuten bezala eta oraingoan Etxebarriak berresten duen bezala. Euskara belaunaldien arteko zubi bat da, gure aurrekoak hobeto ezagutzeko bidea ematen diguna eta gure ondorengoei gu ezagutzeko bidea emango diena.

Kultura Saila
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

AURKIBIDEA

1. Euskal egutegiaren nondik norako batzuk	11
2. Urteko zikloak	12
3. Udaberria	13
4. Garizuma eta Aste Santua	14
5. Aste Santua	15
6. Pazkoa	17
7. Asentsio eta Bestaberri edo Gorpuzti Eguna	18
8. Maiatza	19
9. Izotzak, lehorteak eta izurriteak	20
10. 'Plantar el mayo' eta Donilatxa jartzea	21
11. 'Maiatzeko erregina'	23
12. Gurutzearen eguna maiatzaren 3an	24
13. Udako solstizioa	24
14. San Joan sua	26
15. Urarekin lotutako erritoak	27
16. Belarrak eta San Joan haretxa	28
17. Beste ohitura batzuk	30
18. San Joan, artzainen eta artaldeen zaindaria	31
19. San Joan kantaita (Urdiain, Nafarroa)	32
20. Udaberri eta udako santuak eta jaiak	33
21. Herrietako jaiak eta ospatzeko moduak	38
Bibliografia	43
Irudien iturriak	45





1. EUSKAL EGUTEGIAREN NONDIK NORAKO BATZUK

Euskal egutegiak erromatarra baino askoz lehenagokoaren hondarrak ditu, gaur egun horretara egokituta badago ere.

Euskaldunek aldi batean gauak zenbatzen omen zituzten, eta ez egunak. Ezaugarri hori arkaikotzat hartu behar da. Gauak zenbatzean, baina, ilargiari eta ilargi-hilari erreparatzen zitzaion, hogeita bederatzitik egun pasautxukoari. Hala ere, horri aspaldian utzi zioten, antza, gaur egun ilargia, eguzkia eta nekazaritza kontuan hartzen dituen egutegia daukagu eta.

Ilargiaren indarra galtzen joan zen hilen izenak eta iraupenak nekazaritzako zereginei lotzean. Hala ere, denbora neurtzeko sistema bat baino gehiago egon izan da aldi berean. Hala eta guzti ere, argi dago antzina-antzinatik ezagutzen zela eguzkiaren ibilbidea eta solstizio biak garrantzitsutzat jotzen zirela, beti presente zeudela egutegian.


Urtean zehar lau urtaro bereizten badira ere, euskarazko izenei erreparatuta biren artean dago lehia: *uda*, alde batetik (udaberri, udalehen, udatse, belartze; *uda*; udazken, udagoien, larrazken, ihartze), eta *negua*, bestetik.

Euskal egutegian hil batzuen izenak estu-estu lotuta daude nekazaritzarekin, ilargiaren zikloaren bitartez. Ilargia izan da neurtzailerik zaharrena eta lehena. Hori dela eta, egutegian ilargiaren garrantzia antzina-antzinakoa dela esan daiteke, egutegia orain bezain finkatuta ez zegoeneko.

Hilen euskarazko izenei begiratuz gero, multzoka banatzen dira. Batzuek latin jatorria daukate: martxoa, martia, maiatza, abuztua, setemer. Beste batzuek kristaua: abendua. Badira itxura baten 'ila' hitzarekin osatuak latineko beste batekin nahastean: apirila eta loraila. Gero beste hiru multzo berezi geratzen dira: *-ila/-ile* daukatenak, euskaldun petoak, antza: epaila, jorraila, garila, uztaila; *-aro/-zaro* daukatenak: azaro; eta izen independentiak.

Baina urteko hilak argitzea zaila bada, asteko egunen izenak are zailago edo ilunago egiten dira.

Astelehen, *astearte* eta *asteazken* izenek gure artean astea hiru egunekoa izan dela pentsarazi izan dute. Zelten artean ere ohikoa izan da hiruko banaketa. Horrez gainera, igandea ilargi betearekin lotuta dago.



Gure Herria aldizkariak 1926tik aurrera argitaratu zuen *Gure Almanaka* Baionan

Ostegun eta *ostiral*, *eguen* eta *egubakotx* izenak jainkoen ideiarekin lotzen dira. Esan nahi da, zeruaren jainko batekin, *Ortzi*, *Urtzi* (hainbat hitzetan dago, *ostegun*, *ortzadar* eta antzekoetan) eta **Egu* (*eguen*, *eguzki*, *eguerdi* hitzetan dagoena) izenez izendatuko zutena.

Barandiaranek zeruko jainkoari, zeruari, hodeiari eta ostegunari buruz indogermaniarren artean zabaldutako ideien eta euskaldunen artean gaur egun oraindik gordetzen direnen arteko parekotasuna nabarmendu du. Haren ustez, *Ortz*, *Ost*, *Ortzi* edo *Urtzi* zerua edo zeruko argia pertsonifikatzeko jainkoa zen, eta euskaldunen artean neolitoan gurtzen hasi zen.

Egu erroari dagokionez, beste hitz esanguratsu askotan ere badago: egun, eguzki. Eguzkia ere jainkotzat hartu izan dela kontuan hartuta, *Egu* hori zeruko jainkoari esateko beste modu bat izan daiteke.

Beraz, zeruko guztiarekin lotutako jainkoari deitzeko bi izen erabili izan omen dira, *Ortz* eta *Egu*.

Baliteke *egu* zaharragoa eta jatorragoa eta *ortz* modernoagoa izatea, bata zeruko argitasuna eta distira adieraztea eta besteak babestea, gordetzea. Argi dagoena da eguzkiaren ideia eta zeruarena bat direla.

Ondorioz, badirudi euskaldunek nahiko berandu egokitu zutela astea latinera, eta gainera, aurreko izendapenak gordeta.



2. URTEKO ZIKLOAK

Egutegiaren oinarrizko unitatea urtea da, urteak ziklo bat osatzen du eta hala goaz urteak metatzen. Urtearen barruan ere, ibilbide bera egiten da urtero-urtero, urtaro bakoitzari dagozkion lanak eta jaien segidak behin eta berriz errepikatzen direlako. Urtaroetako lanen egutegia gizarte nekazariarekin lotuta dago, soroetan garai bakoitzean zer landu edo zer batu behar zen, horretarako lanak ondo finkatuta. Jaiak, ostera, nekazaritzako lanen arabera ez ezik, gure inguruan urte liturgiko katolikoaren arabera ere ordenatzen dira.

Urteko zikloaren hasieratzat negua ematen da. Hazia sortzeko garaia da, eta errito intimistak dagozkio. Negukoak dira eske-errondak, Gabon aldiko ospakizunak eta opariak, urte zaharrari errematea ematea eta urte berriaren erritualizazioa, animaliak eta lurrak bedeinkatzea, eta inauterietako orgia-erritoak. Neguko jaietan osagai sinbolikoak daude, adibidez konjuruak, suak eta errito lustralak.


Udaberriak beste giro bat dakar, ernetzeari dagokiona. Hala ere, bizi berriaren itzaropena beldurrekin nahastuta dator, uztak galtzeko beldurrarekin hain zuzen. Horregatik, udaberrian uztak ziurtatzeko erritoak ugariak dira: lurrak bedeinkatzea uzta ona emateko; euri-ekaitz-sikatearen kontrako otoitzak eta errogatibak. Urtaro honetan elkartu egiten dira, kristau zikloan Garizuma, eta nekazaritzakoan natura esnatzea. *Maiatza* esaten zaion zuhaitza altxatzea maitasunaren hilaren ezaugarria da, landareen edertasun-emankortasunarena.

Hurrengo urtaroak, udak, betetasuna dakar, fruituak batzeko eta jaiekin ospatzeko garaia. Hasi ere solstizioko

erritoekin hasten da, ondoren dator uzta ospatzeko eta eskerrak emateko garaia, eta jai nagusiak gero, herri eta auzo guztietan. Udako solstizioko jaiak naturarekin lotutako sineskera eta erritoak dira, sua garbigarria da, lurreko arerioak hiltzeko balio du (sorginak, sugeak, zapoak...) eta gaixotasunak sendatzeko. Gaur egun funtzioa aldatu egin da, orain San Joan bezperako suak ez dira egiten suaren indarrean sinetsita, jai hutsa, gehienez ere jauzi-lehiaketa dira. Baina hala ere, beti da aitzakia herritarrak batzeko eta elkarrekin une gozoak igarotzeko.

Udazkena etxeko eta tenpluko intimitatera itzultzeko garaia da; heriotza ohikuneen garaia da, postulazio zikloa, bizitza-ziklo berriari hasiera emateko prestatzea.

Ikerlariak urteko jaien zikloa lau urtaroretan banatu dute: negua, udaberria, uda eta udazkena. Hala ere, ezin da egun zehatzik finkatu aldi bakoitzerako, egutegi zibileko eta jaien zikloak ez datoz beti bat, gainera. Horregatik,



Arantzazuko egutegiak zabalkunde handia izan du

askok Gabonak jartzen dituzte neguko zikloaren hasieratzat eta Aste Santua udaberrikoarena.

Denboran zehar bilakaera ikusten da. Jimeno Juríok dioenez, santuen kultua nekazariaren premietara egokitzen joan da, nekazaritzako zikloko jaiekin bat egitera. Hala bihurtu dira hainbat santu pertsona, etxe, uzta eta animaliairene babesle.

Horren ostean beste pauso bat ikusten dugu. Nekazaritzak eta lurra lantzeak gizartean lekua galdu ahala, ospakizunen zentzua galtzen edo aldatzen joan da, eta baita datak ere. Orain santuen egunak asteburuz eta ahal dela udan ospatzen dira, jende gehienak lanean oporrak hartzen dituen sasoiaren eta kalean ibiltzeko eguraldi hobea dagoen aldiaren. Gaurko bizimodua bestelakoa da eta horretara ekarri dira ospakizunak ere.

3. UDABERRIA

Negu hotz eta ilunaren ostean, udaberriak argitasuna, egun luzeak, landareak loretan, usainak dakartza. Udaberriko ekinozioaren (martxoak 21) eta udako solstizioaren (ekainak 21) artean kokatzen da aldi hau.

Herri esaera batek zehatz ematen ditu hasiera-amaierak: “Kukuak Andra Mari Martikoz kuku, San Pedroz mutu.” Hau da, martxoaren 25ean hasten da kukua kantuan eta ekainaren 29an isiltzen da, eta hori da udaberriaren neurria.

Udaberria urtaro sano aberatsa da herri-jaietan. Egutegi erlijiosoko jaietan bat da ardatza: Pazko eguna. Aurretik eta atzetik beste jai batzuk ditu, garrantzitsuak denak. Aurretik Garizuma eta Aste Santua aipatu behar dira;

ondorengoan artean, aldiz, errogatibak eta beste jai batzuk, hala nola Asentsio, Hirutasuna, Mendekoste edo Pazko Maiatzeko eta Gorpuzti edo Bestaberri.

Parean doa egutegi naturala, sineskera eta erritoen bitartez ondo igartzen dena. Ardatza pazko loratua da, landaredi bizia, neguko heriotzaren osteko bizigarria, natura distiratsu dagoela. Maiatzaren bata eta zuhaitz totemikoa dira garai honetako muina, eta bat egiten du lore-sorta babesleekin eta maiatzaren hiruko Gurutzearen egunarekin.

Kukua

Herriarentzat udaberria kukuak kantatzen duen aldia da. Kukuaren inguruan hainbat sineskera daude. Sineskeren artean batzuk kukuaren urteko lehenengo kantuarekin lotuta daude. Liginagan jasota dago kukuak martxoaren 5ean Erromako zubian kantatzen duela



Esaera, pasadizu, biografia eta era guztietako berriak ematen ditu Arantzazuko takoak

lehenengoz. Kukuaren hotsa lehenengo aldiz entzutean aldean dirua daroanak urte osoan ez duela dirurik faltako esaten da; dirurik ez daukana, aldiz, pobre geratuko da.

Kukua entzutean boltsako dirua irauli behar omen da, urte osoan dirurik falta ez izateko. Baten batek kukuaren soinua entzunez gero, pertsona hori biziko den seinalea izaten ei da, urte horretan behintzat ez dela hilko esaten da; horregatik, gaixoak kukua entzuten duenean esperantza hartzen du, sasoi txarrak eta negua amaitu direlako.

Hainbat esaera daude kukuaren inguruan:

Kukuak kuku Erromako zubian, zortzi egunerako agertuko da Euskal Herrian.

Kukuaren hotsa, zaharraren arnas berritza.

Kukuak bere izena kantatzen du.

Maiatzean kukuak kuku, diruz banitu bi zaku.

Kukua etorri, gosea etorri; kukua joan, gosea joan.

Kukua kantatzen euri eta eguzki.

Kukuak zazpi urtean eskolan ibili eta kuku baino besterik ez eban ikasi.

4. GARIZUMA ETA ASTE SANTUA

Udaberriarekin bat egiten du Aste Santu inguruko zikloak, Elizak agintzen dituen ospakizunak eta arauak barruan direla. Ziklo horretan sartuko ditugu Garizuma, Aste Santua, Asentsio eta Gorpuzti.

Garizumak eguneroko bizimodu normala eten egiten zuen. Berrogei eguneko aldi hori bekatariak gorputza eta arima garbitzeko da, Jesusen nekaldia datorrela prestatzeko. Hainbat ezaugarri ditu berezko: baraua, bijilia, gorputza zigortzea, elizkizunetara joatea, hitzaldiak, jai eta dibertsiorik eza, gurutzea ikurrik adierazgarriena.

Elizak indar handiagoa izan duen aldian, honek denak bizimodua baldintzatu izan die herritarrei: Garizumako hitzaldietara eta elizkizunetara joateko, beharrak egiteko orduak antolatu behar eta jateko arauak ere egokitu behar.

Eliza Katolikoaren barau eta haragirik gabeko egunen gaineko arauak garrantzi eta eragin handia izan dute gure jateko ohituretan, batez ere garai eta egun jakin batzuetan.

Barauaren legeak agintzen zuen barau-egunetan otordu bakarra egin behar zela, baina hala eta guzti ere ez zuen debekatzen goizean eta arratsaldean zeozertxo hartzea. Baraua 21 eta 60 urte bitartean zeudenek bete beharrekoa zen, salbuespen batzuk kenduta: lan fisiko gogorra egiten zutenak, gaixorik zeudenak eta beharrian handiak zeuzkatenak.

Oihenartek “Elizaren manuak” olerkian honetara aipatzen du baraua nolakoa zen XVII. mendearen erdi aldean:

*Barur egik jeigeietan
berrogeian, laur mugetan,
bait'elik'aragi jatez
orzirale larunbatez.*



4

Erramuak prestatzen

Hau da, baraua egin jai bezperetan, berrogeialdian, lau tenporatan, eta ez haragirik jan ostiral-larunbatetan.

Bijiliaren legearen arabera, ezin da haragirik jan, ezta haragiaz egindako saldarik ere.

Gaur egun asko murriztu eta arindu dira arauak gai hauen gainean eta ez dira hain zorrotz betetzen.

Halako egunetako jatekoak nahiko antzekoak ziren etxe guztietan. Lapikokoari ez zitzaion urdai, txorizo ez okelarik botatzen. Horregatik, olio-aza eta indaba zuriak jaten ziren gehien-gehien, edo patatak saltsa berdean eta porrusalda. Okelarik ezin jan zenez, ahal zutenek arraina jaten zuten, bakailaoa batez ere, eta bestela sardina zaharrak; osterantzean, arrautzak.

5. ASTE SANTUA

Aste Santua Garizumaren amaiera da, Jesusen heriotza eta piztuera gogoratzeko egunak. Horregatik, giro motela, isila izan da nagusi. Kalean tabernak itxi egiten ziren, ez zen egiten erromeriarik ez ezelako jairik, irrati-telebistetan musika sakratua eta santuen gaineko filmak baino ez zituzten ematen.



Prozesioa herrian zehar. Ibarrangelu, 1964

Erritoz beteriko egunak dira Aste Santukoak, eta ospakizun bereziak egiten dira. Prozesioak ohikoak izan dira eliza gehienetan, eta gaur egun ere egiten dira hainbat tokitan (Bilbon, Seguran...). Halakoetan Jesusen bizitzako eta nekaldiko irudiak ateratzen dira eta herrian zehar erakusten. Hirurren Santuan kanpairik jo ezin zela eta, ospakizunetan tronpetak, karrakak erabiltzen ziren elizkizunen orduak abisatzeko.

Beste batzuk antzeppen modukoak dira. Erramu-egunean, kasurako, Jesus asto gainean herrian sartzea, jendeak Hosanna abesten duen bitartean; Ostegun santuz Jesusen eta apostoluen Azken afaria eta Jesusek hurkoei oinak garbitzea hainbat tokitan antzeztu izan da eta egiten da; baita Jesusen heriotza ere, Ostiral Santuz.

Dena den, Aste Santua udaberriaren ataria ere bada, eta herriko jendeak orduko osagai liturgikoetako asko bere premietara egokitu izan ditu.

Erramu-egunean erramuen bedeinkazioa egiten da. Horretarako, eskualde bakoitzak bertako lora eta

landareak batu izan ditu. Behin bedeinkatuta, erramuok etxera eroaten dira eta gela guztietan jartzen da orritxoren bat, edo etxeko toki seinalatu batean bestela, etxea babesteko. Gauza bera egiten da soroetan, han ere jartzen da erramu bedeinkatuaren zatiren bat. Arluzean, Bernedon (Araba), erramuarekin gurutzea egin eta, otoitz egin ondoren, ur bedeinkatua botatzen zioten gainetik esaldi hau esanez:

*Agua bendita del Cirio Pascual,
mata el sapo y guarda el pan.*

Larunbateko elizkizunak ugariak dira, eta zeinuetan aberatsak: sua, suberrria, pazko-zuzia, intsentsua, ura, olioia ospatu eta bedeinkatzen dira, urte osoan zehar Pazko-eguneko piztuera gogoratzeko, esaerak dioen moduan: “Garizuma beltza hil bedi, Pazko jauna piz bedi”. Hori dela eta, ohikoa izan daugarra pala batean hartuta etxera eramatea. Hori baino ohikoagoa izan da ur bedeinkatua eramatea, etxeko gela guztietan apur



Jesusen Nekaldiaren antzezpena Balmasedan, 1999

bat bota eta gainerakoa gordetzea gaixoen oheetan eta gurutzeetan jartzeko.

Zuberoan, kasurako, Zapatu Santuz ogia eta ura eramaten zituzten elizara bedeinkatzera, eta hurrengo egunean, Pazko egunez, goizean lehenengo orduan aurreko egunean bedeinkatutako ogia eta ura hartu.

Beste hau ere Zuberoan jasota dago. Beluko mezaren ostean, etxera joan orduan, belaunikatu eta bedeinkatutako ogia eta ura hartzen zituzten, baina gero denak elkartuta mahaian jarri eta urdaiazpikoaz egindako tortilla jaten zuten. Normalean, gainera, egun horretan hasten zen lehortzen egondako urdaiazpikoetako bat, urteko lehenengo pernila.

Iholdin (Nafarroa Beherea) herriko familia guztiek *morrokoa* izeneko ogi berezia eramaten zuten mezatara bedeinkatzera. Ogi horren zatitxoa hurrengo urtera arte gordetzen zen, Gabonetan ogi-koskorrekin egiten den moduan.

Tokian-tokian, prozesioen ibilbideetan edo egunotako elizkizunetan erabilitako beste hainbat sinbolo osasunerako onuragarritzat hartu izan dira.

6. PAZKOA

Pazko-eguna jai-egun handia izan da, etxekoekin ospatzekoa. Eguneroko bizimodura bueltatzea zen, jaiak egiten hastea. Egun horretan ohikoa izan da bazkaltzeko familia osorik elkartzea eta plater nagusitzat auma edo axuria erreta edo gisatuan jatea. Postrerako gatzatua edo mamia jaten zen leku askotan, Gipuzkoan batez ere.

Arrantzaleen artean ere egon da ohitura hori. Ziburun (Lapurdi) esaterako, itsasontzi bakoitzeko arrantzaleak, itsasontziko jabeak ordainduta axuria jateko elkartzen ziren.

Horrez gainera, urteko jai handienetan bezala, Gabonetan edo Errege egunean adibidez, gosaltzeko txokolatea hartzen da etxe askotan.

Beste hau ere Pazko-eguneko ohitura orokorra izan da Euskal Herri osoan: aitabitxi-amabitxiak besoetakoei ogi edo opiltxo berezi bat oparitzea. Izen asko hartzen ditu opil horrek leku batetik bestera: mokotsa, morrokotea, pazkopila, karapaxua, arrazobia, ronzopila, amatxi-opila...

Ogitxo hori Zapatu Santuan egiten zen, etxerako ogiarekin batera. Baina labean sartu baino lehen txorizoa edo arrautza sartzen zioten eta, azaleko itxura hobetzeko, arrautza irabiatua ipintzen zioten gainean. Leku batzuetan biribilak ziren eta beste batzuetan hiru puntakoak.

Ohitura zen besoetakoak Lehenengo Jaunartzea egin arte oparitzea, baina beste batzuetan ezkondu arte egiten zuten. Besoetakoak eurak joaten ziren amabitxiaren etxera opil eske egun horretan.



7. ASENTSIO ETA BESTABERRI EDO GORPUZTI EGUNA

Jaia eta ospakizuna udaberriko bi ostegunetan egin da batez ere: Asentsio egunean eta Gorpuzti egunean.

Asentsio egunean Jesus zerura igotzea gogoratzen da, eta Pazko egunetik berrogei egunera ospatzen da. Euskaraz Salvatore eta Jaundone Salvatore ere esaten zaio. Orain dela ez urte askora arte jai handia izan da. Bizkaia osoan Asentsio aurreko hiru egunetan errogatibak



Gorpuztiko prozesioa. 1905

egiten ziren herri bakoitzeko hiru ermitara prozesioa eginez, santuen letaniak kantatuz. Umeez lehenengo jaunartzea egiteko eguna izan da toki askotan, eta bestela ere jaiegun handia. Prozesioak, erromeriak, familiako bazkariak, zezenketak... ohikoak izan dira. Bazkaritan ere ez edozer, legatza eta bildotsa zenbait etxetan. Hainbestearino, handik egun pare batera larru-eroslea joaten zen etxerik etxe, bildotsak hiltzen zituztela jakinik.

Bestaberri eukaristia goratzeko jaia da, Jesus Sakramentu Santuan dagoela gogoratzeke. Pazko egunetik hirurogei egunera ospatzen da, eta urteko jairik handienetakoa izan da. Orduan ere prozesio handiak, ospetsuak egiten izan dira. Aldareak atontzen ziren kale edo plazetan, eta hainbat tokitan prozesioaren bidea lorez estalita jartzen zen. Lehenengo jaunartzea urtean egindako umeez orduko jantziak eramaten zituzten berriz, eta lore-hostoak botatzen zizkieten gure Jaunari, beste batzuk aingeru jantzita zeudela.

Meza ondorengo prozesioan kantuak, auto sakramentalak eta dantzak ere egiten ziren. Ibilbide



Umeez aingeru jantzita, aldare berezietan. Aia, 2006

guztian lore ikusgarriak, dena kolorez eta usainez beterik egoten zen. Oñati, Segura, Tolosa, Bera, Heleta, Bidarrai eta beste hainbat herri ditugu jai hau gora handiz ospatzen dutenak; dantza bereziak egiten dituzte, baita eliza barruan ere.

Donibane Lohizunen Trufania egunera eroanda dago Gorpuztiren ospakizuna, udan arrantzaleak itsasoan zeudela eta.

8. MAIATZA

Lora-hila zuhaitzaren jaiarekin hasten da (maiatzak 1), landaredia borborrean dagoela natura babesten, eta zuhaitz kristauarekin (maiatzak 3). Gurutzeak berez Kristoren heriotzaren esanahia daukan arren, apurka-apurka erreparorik gabe hartu zuen talisman, kutun kutsua, uztak ekaitzetatik babesten dituen zuhaitzaren orde.

Herri-pentsaeran maiatza naturaren piztualdia, jaien hila eta maitasunaren aro gorena da. Hiru osagaiok, landaredia, maitasuna eta jaiak, elkarrekin lotuta daude, nahastu eta elkar osatu egiten dute; izan ere, loreak maitasun-adierazle bihurtzen dira eta maitasuna naturaren bizitasunaren ikur. Herri tradizioko kopletan egiten diren aipamenak bide horretatik doaz normalean.

*Larrosa zurigorri
udaberrikoa;
ederki dantzatzen da
gure auzokoa.*

*Udaberria da ta
denbora beroa;
gazte zoroak beti
arin du gogoa.*

*Maitetxo bihotzekoa
trebola maiatzekoa,
niretzako jai ez bazinen
serbidu eizu Jaungoikoa.*

Bai Euskal Herrian, bai Europa osoan, hainbat ekintza berezi egin izan dira aspaldidanik maiatzari ongi-etorria egiteko. Gaur egun ezagutzen ditugunak antzina grekoek eta erromatarrek Maia izeneko jainkosaren omenez egindako jaialdien aztarnak dira.

Maia emankortasunaren, izakien hazkuntzaren eta landarediaren garapenaren jainkosa zen, jainkosa garrantzitsua.

Nekazariak, hala eta guzti ere, garai horretan arrisku larriak ikusten dituzte, lau batez ere: izurriteak soroetan, apiril amaierako eta maiatz hasierako hondamendizko izotzak, lehortea eta ganaduaren zenbait gaixotasun. “Maiatz hotzak, abereak hiltzen” esaten da. “Belar asko bildu dezu! Maiatz luzeak jango ditu”, “Maiatz eurite, urte ogite; hotza eta luzea, fini gure laborea”.

Mendebaldeko kristautasunak, gainera, halako gaitzak Jainkoaren zigortzat hartzen zituen, gizateriaren bekatu eta leialtasunik ezak eragindakotzat. Horri guzti horri aurre egiteko ez zegoen beste irtenbiderik Jainkoari errukia eskatzea baino, santuen bitartez eta penitentzia eginez.

9. IZOTZAK, LEHORTEAK ETA IZURRITEAK

Eguraldiaren alderdi gogorrak hainbat erromesaldi, erregu, otoitz eta antzeko eragin ditu. Herri-esaerak adierazgarriak dira:

Maiatzeko euria, urte guztiko ogia.

Morroien siesta: maiatzeko santakurutzetan hasi eta agorreko (iraileko) santakurutzetan utzi.

Maiatz pardo, ogi ta ardo; maiatz hotz, ez gari ez agotz.



Artaldeak mendira igotzeko garaia

Maiatzeko Santa Gurutze, hilaren hiruan, jai garrantzitsua izan da artzain eta baserritarren egutegian. Jai erlijiosoa baino gehiago zen, Maiatzeko Santa Gurutzetik (hilaren 3an, Gurutze Santua aurkitzea) irailekora (hilaren 14an, Gurutze Santuaren gorapena) bitartean udako garaia zen bete-betean. Otoitz-orduak

udako ordutegira egokitzen ziren Gurutze santuaren jai bion artean; tarte hori zen seinalatua ardiak basora itzultzeko belar berdea jatera, mendiko ur garbietara.

Garai horretan ekaitzen kontrako prozesioak eta larreak bedeinkatzea ugaritu egiten ziren; apaizak muino eta tontorretara joaten ziren bedeinkapenak eta konjuruak egitera eta jendeak gurutzeak jartzen zituen beren lurretan, beti ere halako santuaren ermita edo santutegira begira, eta abar. Maiatzeko Santa Gurutzetik irailekora bitartean otoitzak egin eta kanpaiak jotzen ziren ekaitzak uxatzeko. Kanpai-jotze hori angelusaren ostean egunean hiru aldiz egiten zen. *Tentenublo*, *tenterulo* eta antzeko izenez esaten zaio. Arluzeako (Araba) hau ere zabal ibili da:

*Tenterulo, tente, si
No te caigas sobre mí,
Si eres agua, ¡ven acá!
Si eres piedra, ¡vete allá!
Siete leguas de Miranda
Y otras siete más allá.*



10

Nekazaritzako beharrak auzolanean egiten ziren askotan

Lehortek zirela eta, santuen irudi eta erlikiak ibaian sartu izan dira, Jainkoari euria eskatzeko. Orokorragoa zen santurik gustukoenak atera eta errogatiban ibiltzea.

Bizkaiko herri batzuetan (Mungialdea, Busturia) jasota dago maiatzaren bederatzia *harraren eguna* egiten zela. Egun horretan ez zen artorik erein behar, ez beste ezer, harra sartuko zitzaiolako bestela. Beste lan batzuk egin zitezkeen, baina erein ez. Artoari egun horretan gatzat botatzen zioten, gatzak artoa bedeinkatu eta ez ziolako harrari zabaltzen utziko.

10. 'PLANTAR EL MAYO' ETA DONILATXA JARTZEA

Maiatza *Mayo* edo *maiatza* ipintzeko hila da. Kristautasunaren aurreko zuhaitz totemikoa da, makala, baskoiek landetan jartzen zutena egurrezko oilar, ezpata eta ikurrekin apainduta. Loren hileko ikurrik zabalduenetakoa izan da, antzinako sineskeren adierazle. Haren inguruan gazteek dantzak eta jolasak egiten zituzten.

Teoria baten arabera, baso edo oihan hutsituen ezaugarri zen zuhaitz biluztu hori jartzea. Izan ere, gizakia Neolitoan nekazaritza lantzen hasi orduan, basoak edo oihanak hustu, soildu behar izan ziren. Orduan omen dauka jatorria ohitura honek. Horrezaz gainera, zuhaitzaren gailurrean lurraz emandako fruituak dira jartzen direnak. European zehar ikusten dira halako ikurrak.

Herri eta auzoetako plazan jartzen izan da oraintsura arte, eta baita gaur egun ere, bai egunari bai lekuari

dagokienez hainbat aldaketa egin bada ere. Mayo zuhaitzak eta abarrak ateetan jartzeko ohitura erromatarren garaitik dator, Flora udaberriaren jainkosaren ohoretan. Herri askotan maiatzean jarri izan dira, baina badira San Joan eta Gorpuztietan jartzen dituztenak ere.

Urtean zehar egiten diren jai eta ospakizunak gehien baten herriko gazteek antolatu eta gorde izan dituzte. Gazteek herriko gizartearen estatus berezia izan dute, eta



11

Carcastillo, Nafarroa

gehienetan koadrila edo taldetan batzen dira. Hainbat herritan *maiordomoak* izendatzeko ohitura egon da, urteko jai guztiak antolatzeko arduradun gisa. Neska gazteek ere, hainbat tokitan pareko taldea eratzen izan dute, euren *maiordomak* zituztela.

Maiatza, eta horren ondoren udako sasoia, gazteek gehien bizi izaten duten garaia da, dantzarako eta ondo pasatzeko gogo biziz. Mutil gazteek mayoaren inguruan, eta neska gazteek *maia* jantzita, etxerik etxe ibiltzen ziren dantzan eta dibertitzen. Gaztelaniazko *majo* eta *maja* hitzak hortik omen datoz.

Mayoei dagokienez, ohitura zabala izan da, Euskal Herrian ez ezik kanpoan ere bai. Denetan oinarria bera da, baina herritik herrira aldaerak daude formalismoetan.

Herriaren arabera maiordomoek zeukaten zuhaitza moztu eta herrira eramateko ardura. Bestela gazteen artean zotz egiten zuten. Beste leku batzuetan neskalaguna zeukaten mutilek moztzen zuten, lagunek lagunduta, gero herrira eramane eta neskalagunaren ate aurrean jartzeko. XX. mendearen lehenengo erdian zenbait lekutan beste ohitura bat sartu zen, urte horretan kajan sartuko ziren kintoek izatea horren ardura.

Orokorrena izan da zuhaitza apirilaren 30etik maiatzaren 1era bitarteko gauean jartzea. Hala ere, nahiko normala izan da zergatik edo hargatik datak aldatzea. Kasurako, herri batzuetan hilaren lehenengo



igandean jartzen da, edo herriko jaien bezperan, maiatzaren 15ean San Isidro egunez ere, maiatzeko Pazkoetan edo Mendekoste egunean, Gorpuztietan, San Joan bezperan...

Sarritan lotu izan da Gurutzearekin (maiatzaren 3an ospatzen da). Biak erabili izan dira konjuruak egiteko eta soroak babesteko, leku berdintsuetan jarri izan dira; beraz, ez da harritzekoa mayoa Gurutze Santuaren jaietan jartzea, jaien egutegian egun oso seinalatua da eta.

Zuhaitz moten artean estimatuenak enbor lisu-ederrekoak eta inguruetan errazen lortzekoak izaten ziren, adibidez: makala, pagoa, pinua... Herriko gazte baserritarrek ondo ezagutzen zituzten inguruetakozuhaitz guztiak eta berehala jakiten zuten zein hartu, normalean, zuhaitz gaztea, ez lodiegi eta astunegi, herriraino eroan ahal izateko, ezta meheegia ere, artez zutik jarri ahal izateko.

Ohikoena izaten zen gauez eramatea, lepoan hartuta sarritan, idiekin bestela, eta gaur egun beste bitarteko batzuekin.

Zuhaitzaren babesle ahalmena, gaitzetatik askatzeko gaitasuna, agerian dago. Sarritan parrokien inguruetan jartzen zen, lehenagoko kultu-lekuen ondorengo zirela.

Altxatu aurretik apaindu egiten zen, *mayoa jantzi* esaten zena. Sakratutzat hartzen izan da, eta ezaugarri hori sendotzen dute apaingarritzat jartzen izan zaizkion sinboloek: oilarra, bi ezpata gurutzatuta, gurutzea eta bandera, arranak eta txintzarria, gizon (*arrantutun*) eta emakume (*tuntuneta*) irudiak.

Oilarra aurreko garai eta kulturetatik izan da gaitza kentzeko animalia. Goizean goiz kantua egiten duenean iluntasuna kentzen du, eta harekin batera espiritu gaizkileak eta gaueko arriskuak; eguzkia, argitasuna

eta alaitasuna datorrela iragartzen du. Horrez gainera, oparotasunaren eta ugalkortasunaren adierazlea da.

11. 'MAIATZEKO ERREGINA'

Leku batzuetan *Maiatzeko erregina* aukeratzen zen eta bera izaten zen jaiko protagonista. Hainbat herritan aspaldian galarazi zituzten halakoak, eta galdu egin dira. Beste batzuetan, ostera, gaur arte gorde dira, Nafarroan batez ere, Baztan inguruan kasurako.

Maya edo *Maiatzeko erregina* esaten zaio maien bestetan erregina edo buru egiten zuenari. Jaiari izen



12

Maiatzeko erregina herrian zehar ibiltzen.
Arbizu (N)

bat baino gehiago ematen zaio: *Maiabesta*, *Erregiñetan*, *maiatzeko erregiña*, *Erregiña ta saratsak*. Maiatz loratuko igandeetan, hamar-hamabi urteko neskek zuriz jantzita eta lore-koroak buruan jarrita, kalerik kale eta etxerik etxe ibiltzen ziren dantzan eta borondatea eskatzen. Kantuan ere egiten zuten, beste sasoi batzuetako eske-koplen antzera, etxejoaun eta etxeoandreei kantatutakoak, alargunei, neska-mutil gazteei, apaiz eta agintariei, eskuzabal eta zekenei:

Etxeko andre zabala
leku oneko alaba;
zu bezelakorik ez dala jai
Siberiatik unaraño.

Maya edo erregina neskarik politena zen, erregina jantzita eramaten zuten tronuan eserita, gainerako lagun guztiak zuriz jantzita zihoazela. Etxe batera heldu orduan dantza bat egiten zuten eta etxeoek opariren bat ematen zieten trukean. Emaidza nolakoa zen halako koplak esaten zieten. Batutakoa antzina batean elizarako ematen zen; geroago zati bitan banatzen zuten, zati bat kandelak erosteko eta bestea herriko umeen artean banatzeko eta gozokiak erosteko. Gaur egun, batutako diruarekin merienda egiten dute elkarrekin.

Gure artean ohitura hau zabal ibili da Nafarroan, baina Europa osoan ezagutzen dira antzeko tradizioak. Nondik datorren? Ez da erraza jakitea.

Jimeno Juríok Nafarroakoentzat hipotesi moduan dio balitekeela jatorria izatea maiatzean XIX. mendean elizetan egiten ziren loren ekitaldia. Maiatzeko igande guztietan neskek lehenengo jaunartzeko jantziak ipintzen zituzten. Bakoitzak lore-sorta bat zeraman, eta bertso bakoitza kantatzean, neskek Ama Birjinari

eskaintza egiten zioten besoak gora altxatuta. *Maiatzeko Erreginari* eskaintza izaten zen.

12. GURUTZEAREN EGUNA MAIATZAREN 3AN

Maiatzaren 3an Santa Gurutze egunean, apaizak landetara joaten izan dira herriko tontor edo muinoetan egurrezko gurutzeak jartzera eta lur landuak bedeinkatzera. Eta ez apaizak bakarrik, haien antzera herritarrak eurak ibiltzen izan dira maiatzaren 3an landetan lore-sortak edo etxean egindako gurutzetxoak Santa Gurutze egunean bedeinkatuta jartzen, ereindako haziak edo sartutako landarak zaintzeko.

Beste toki batzuetan, elorri zuria bedeinkatu eta etxean jartzen zen, tximistetatik babesteko.

Egun horretan hasten zen udako errito bat eliza guztietan, eguerdian kanpaiak jotzea ekaitzak uxatzeko.

San Migelen santutegia, Aralarren, Erdi Arotik hona ospetsuenetakoa da Nafarroa osoan, eta are gehiago alderdi euskaldunean. Santutegira joaten zirenek, Teodosio de Goñi penitenteak goiaingerua agertu zitzaionean zeramatzan kateen azpitik igaroz gero, hainbat min eta gaitz galtzen zituzten.

Santua urte osoan egoten da santutegian, baina Pazko loratuko kanpaiak urtero jotzen dutenean, atera egiten



dute santutegitik Nafarroako hainbat herritan ibiltzeko. Ibilaldia lehen oinez edo asto gainean egiten zen; orain, aldiz, autoan. Ibilaldiaren helburua debozioa bultzatzea eta lurrak zaintzea da. Herri guztietan egiten dira bedeinkapenak.

Maiatzeko Gurutzeak neurri handi baten bereganatu egin du Maiatzeko zuhaitza.

13. UDAKO SOLSTIZIOA

Antzina-antzinatik izan dira urteko egutegian bi egun seinalatu: urteko gaurik luzeena (eta egunik laburrena) neguko solstizioa zen, eta gaurik laburrena (eta egunik luzeena) udakoa. Udako solstizioa, urteko egunik luzeena, poz handiz hartzen zuten baskoiek, edo Indoeuropako kultura guztiek, kristautasunak San Joanen inguruan jaiak jarri aurretik ere. Neguko solstizioarekin batera, biak ziren gau santuak, mirarizkoak, mitoz eta erritoz beteak. Elizak horiekin biekina egitera ekarri zituen Jesukristoren jaiotza (abendua 24) eta San Joan Bateatzailearena (ekainak 24).

Uda San Joanetan hasten da, ordurako belarra eta uzta batu eta gordeta edukitzea zen ardurarik handiena, pertsonen eta animalien janaria ziurtatzeko ekaitz txar batek dena alperrik galdu baino lehen. “Udara, San Juanetatik San Pedrotara” da esaera.

Eguzkia bera izan da jainkoetako bat antzinako kulturari, bai Euskal Herrian bai beste kultura zahar guztietan, eta bere ohorez jai handiak egiten zituzten. Barandiaranek solstizioei *eguzkiaren itzulmugak* esaten

zien. Hau da, denbora luze batez egunak luzatu egiten dira eta ondoren laburtzen hasi, harik eta luzeenera edo laburrenera heldu arte, horiek dira solstizioak.

Hainbat esaldi geratu zaizkigu, gaur egun adiera hori galduta egon arren, antzina baina ez hainbeste (joan den mendeko 50-60 hamarkadara arte) eguzkiari egiten zitzaizkion agur eta eskari edo erreguen erakusle: “Eguzki amandrea badoia bere amagana, bihar etorriko da denpora ona bada” (Arratia, Elosua); “Adios, amandre, bihar artio”. Santu edo sakratutzat hartuta ere ikusten dugu: “Eguzki santu bedeinkatua, zoaz zeure amagana, etorri zaitez bihar, denpora ona bada” (Gernikaldea), “O Iruzki saindia, eman biziko eta hileko argia” (Luzaide). Esaldiotan ikusten den moduan, euskaldunok eguzkiari, ilargiari moduan, izaera femeninoa ematen diogu.



13

Eguzkiloreak eguzkiaren irudia dakarkigu;
babesle gisa erabili izan da

Eguzkiak gure kulturaren izan duen garrantziaren adierazgarri dira aspaldidanik agertzen diren irudiak (batzuetan eguzkia bera edo bestela beste elementu batzuk, lauburuak...). Halako irudiak edonon islatzen ziren, testigantzarik zaharrenak hilarrietakoak dira (IV-V. mendeetatik), etxeko hormetan, egurrezko kutxa zaharretan... Gerora apurka-apurka jatorriko zentzua galduz joan da eta apaingarri gisa erabiltzen dira.

Eguzkiaren garrantzia azaltzeko hainbat arrazoi dago. Lehenengo eta behin bizitzarako ezinbestekoa da, urte osoan uzta eguraldi onaren edo txarraren arabera izaten baita. Eta beste alde batetik, ezin ahaztu dugu eguzkia espiritu txarren, sorginen, deabruen eta parte txarreko guztien uxatzailea dela. Eguzkilorea jartzen da etxe atarrietan etxea jagoteko. Gaizkile horiek guztiak gabez irteten dira, eta eguna egin orduko, eguzkia ateratzen denean, galdu egiten dira.

Eguzkiaren omenez ospakizunak edo ohikuneak egiteko egunik aproposena ekainaren 24a da, hasiera baten solstizioaren eguna eta geroago, elizaren eraginez, san Joan edo Doniane eguna izango dena. Egun handia da, gainera; gure inguruan, herri askotan jai patronalak baino estimatuago eta garrantzitsuagoa izaten zen. Gau osoan jaialdia izaten zen, “Guazen san Juanera gaur arratsian, etorriko gerala bihar goizian”. Hurrengo egunera arte egoten ziren eguzkia irten arte geratzen zirelako. Gabonak etxean eta familia giroan ospatzen diren moduan, sanjoanak kalean eta jendearekin ospatu izan dira. Festa zaratsua izaten zen eta leku askotan, orain Gabonzaharretan moduan, bolanderak eta eskopeta-tiroak botatzen ziren.

Euskal Herrian errito eta ohikune asko egon dira egun horrekin lotuta. Baina gizarte tradizionalak egin duen

bilakaera dela eta, gaur eguneko bizimoduan ohikuneok ia ez dute lekurik eta galduz doaz, edo era sinbolikoan baino ez dira gordetzen. Arrazoia argia da, antzinako ohiturak nekazaritza eta abelazkuntzarekin lotuta daude, eta halakoen garrantzia gutxitu ahala erritoak ere murriztu egin dira.

Gaurko bizimodutik nekeza da ulertzea gure arbasoentzat uzta ona izateak nolako garrantzia zeukan, urte batean uzta txarra izateak nolako ondorio negargarriak zekartzan urte osorako. Gaur egun dendara joan eta denetarik eros dezakegu edozein urte-sasoitan, baina lehen ez. Horregatik, gure baserritarrek gogo biziz bedeinkatzen zituzten zelaiak eta ortuak, sendabelarrak bilatzen zituzten, uzta ona izateko eskariak egiten zituzten eta horrekin guztiarekin daude lotuta sanjoanetako ohiturak.

Errittoa eta sineskerak bat eginda egon dira; gero sineskerak galdu egin dira eta errittoa gorde, baina behin esanahia galduta jai bihurtu dira.

Ohikune edo errittoa hauetan naturako elementuak erabiltzen dira gehien baten: sua, ura eta landareak.

14. SAN JOAN SUA

Sua dugu jai honetako sinbolorik adierazgarrienetakoa, eta Europa osoan eta Asia mendebaldean da ezaguna, gainera. Eguzkiak argia eta beroa dakarzkigu, suak

bezala, horregatik biak batzen dira egun horretako ospakizunetan. Sua solstizio biekina dago lotuta, esaera zaharrak dioenez “Sua Gabonetan txapan eta sanjoanetan plazan”. Gabonetan subila edo enborra ipintzen da sutan Gabon-gaueko adierazgarritzat.

Su babesleak egiten izan dira, eta egiten dira, plaza, auzo eta etxe aurreetan ekainaren 23an. Aurreko urteko sanjoan belarrak errez hasten dira eta, sugarrak moteldu ahala su gaintetik salto egiten da.



14

San Joan bezperan sua egiten da etxean, auzoan eta herrian



Jauzia egin ahala konjuruak botatzen dira, era askotakoak gainera. Batzuk osasunaren aldekoak: “San Juan bezpera sarna fuera! Gaiztoak kanpora. Onak barnera!”, “San Juan bezpera, sarna fuera. Ogia ta ardoa etxera. Atso zaharra gangelpera. Neskatxa gazteak txokolate hartzera”, “San Juan bien, sarna fuera! San Juan Bautistaren izenean salto!”. Beste batzuk gaizkinen kontrakoak dira: “San Juan heldu da, sorgin beldurra galdu da, galdu bada gal dadila, ager ez dadila sekula”, “San Juan, artoak eta gariak gorde, lapurrak eta sorginak eta beste peste guztiak erre”.

Gau horretan sua garbitzailea da, indar-berritzailea, gutxienez kultura indoeuoparrear. Su horrek odola eta azala garbitzen ditu, gaiztoak kanpora eta onak barrura bidaltzen ditu, eta eskatzen dena da osasuna izatea eta gaitzak kentzea.

Suarekin etxeak eta etxeokak sorgin, apo eta gainerako kalteginetatik libre geratzen ziren. Etxearen barruan, aurreko urtean san Joan egunez bedeinkatutako irak edo garoak erretzen ziren zartagin batean eta etxeok gela guztietatik pasatzen ziren kearekin etxea gaitz guztietatik babesteko. Hori berori egiten zen leku batzuetan (Bermeon adibidez, Bizkaian) itsasoan arrainak erakartzeko.

Baina suaren onura larre eta ganaduetara ere zabaltzen zen. Galzuziak sutan hartu, eta soro eta larreetan kantuan ibiltzen ziren:

*“San Juan san Juan biharamone
gure soloan lapurrik ez, sugerik bez
badagoz bere, badagoz bere
erre beitez!”*

*“San Juan bagilean
denpora ederrean,
artoak eta gariak gorde,
zapoak eta subeak erre!”*

*“San Juan, San Juan, viva San Juan,
artoak eta gariak gora, viva San Juan,
subeak eta zapoak erre, erre, erre, viva San Juan”.*

*“Gaur dala bihar dala Doniane,
etzi san Juan biharamone,
gure soloan zaporik ez,
satorrik bere ez,
sugerik bere ez.
Badagoz bere, erre beitez”.*

Su horren errautsak ere gorde egiten ziren, bai umeei bai ganaduari, azaleko gaitzak sendatzeko.

15. URAREKIN LOTUTAKO ERRITOAK

Itsaso, erreka eta iturrietako urek, baita garoak ere, urtean zehar ez dituzten botere bereziak hartzen dituzte egun horretan. Doniane bezperako ura berezia da. Gaueko hamabietan, harriak ogi eta urak ardo bihurtzen omen dira. Beste toki batzuetan, botila bat ur aza baten azpian jarriz gero, gaueko hamabietan anis bihurtzen zela esaten zuten.

San Joan bezperako gauerdian iturrira joan, bainatu, ura edan eta etxera eramaten izan dute, etxeok guztientzako sendagarritzat. Nafarroan batez ere, gaueko hamabietan

jendea erreketan bainatzen zen, horri *sanjuanada* esaten zitzaion. Gehienetan egun horretan izaten zen urteko lehenengo bainua. Egun horretara arte umeeek galarazita izaten zuten errekan sartzea, baina san Joan egunean, eguraldi txarra eginda ere, bainatu egiten ziren. Errekarik ez zegoen lekuetan iturrietan garbitzen zituzten aurpegia, eskuak eta oinak. Ohitura horren helburua zen izurri-gaitzik ez hartzea. Gero jaia egiten zuten, txokolatada, dantzaldia eta abar.

San Joan goizean arpegia arrosa-urez garbitzen dute zenbait lekutan. Bezpera arratsaldean ontzi handi batean ura jartzen da arrosa-petaloeekin, eta gaua kanpoan eman ostean, goizean garbitzeko erabiltzen da.

Goizeko ihintza izan da garai horretan soro-larreetan ura aurkezteko beste modu bat. Euskal Herri osoan ohitura zabala izan da goizalde horretan belar gainean ortozik ibiltzea edo biluzik txiribuelta batzuk egitea. Halakoak azaleko gaixotasunetarako (ezkabia, hazterria, legena, etab.) eta umeen gaitzentzat izan dira batez ere.

Beste eritasun batzuk osatzeko ere erabiltzen zen gau horretan ura, esan dugun moduan botere berezia zeukan eta. Horretarako leku berezi batzuk daude. Ziordiako iturrian gaixotasun erreumatikoak osatzen ziren, Ihantzin garauak edo garatxoak, Maiako iturrira burusoilak joaten ziren, han burua bustiz gero ilea berriz haziko zitzaielakoan.

Horrez gainera, Nafarroa aldean emakume antzuak iturrira joaten ziren eta ura edan ondoren iturriaren harrietako baten kontra igurzten zuten sabela, hori eginez gero haurdun geratzeko esperantzan. Herri batzuetan, Araozen adibidez (Oñatin), ume txikien arropak egoten izan dira, hara joan eta ostean haurdun geratu diren emakumeek utzita. Hau dena ez da

harritzekoa ere, solstizioarekin lotutako erritual asko emankortasunarekin lotuta baitaude.

Zelten kulturari emakumeek menhirretan igurzten zuten sabela helburu berarekin. Harria izaki bizia zen,ugarria. Horregatik, halako ohiturak ez daude beti solstizioari lotuta.

Eta etxean ere, eguzkia atera aurretik erradetako ura etxetik kanpora bota eta iturritik berria ekartzen zen.

16. BELARRAK ETA SAN JOAN HARETXA

Gau horretan belar-loreek ere indar berezia dute, esaerak dioenez “edozein bedarrak dau usaina Doniane goizean”. Eguna egin aurretik batutako landareak sendabelar bihurtzen dira: mihilua, intsusa, malba, malba zuria, kamamila, sanjoan liliak, albaka, ira, ereinotza, intxaurrendoa, lizarra, hagina, makala, elorria lekuen arabera.

San Joan goizaldean, sortatxoa osatzeko lore-landareak batzen dira, hau da, belar, lore, gari- eta arto-landare, berakatz-buru, sagar-adarrak eta abar. Horiekin nahiz beste edozeinekin *san jua lorak*, *san jua sorta* edo *san jua belarrak* esaten direnak prestatzen dira. Familia edo herriaren arabera, batzuk edo beste batzuk erabiltzeko ohitura dago.

Leku batzuetan, elizara eroan gabe ere, goiz horretan eguzkiak irten orduko batutako lore-belarrek berez zeukaten sendatzeko ahalmena. Hala ere, geroago hasi ziren hurrengo egunean meza nagusian bedeinkatu eta bueltan ganbaran uzten sikatzen.



15

Lizarrak atean jarrita. Beasain

Herri eta garaien arabera, sanjoan belarren erabilera aldatu egiten da. Batzuek erramua sabaian edo etxeko beste lekuren batean eskegita gordetzen zuten, eta katarro, hotzeri, alborengo edo antzekorik edukiz gero, infusioan hartu edo arnasteko erabiltzen zuten. Udako ekaitzetan eskukada bat erre ere egiten zen, Santa Barbarari otoitz egin bitartean. Batzuek San Anton egunez gabon-subila berriz biztu, eta hara botatzen zituzten sanjoan belarrak, haren keaz kortako ganaduari osasuna emateko. Ekaitza zenean, tximista edo oinaztarria uxatzeko, sortako belar batzuk hartu eta sutara botatzen ziren.

Landara horiek erretzean sortzen den kearekin etxe osoa lurrintzen zen eta horretara etxe guztia eta barruan bizi direnak, abereak barne, bedeinkatuta geratzen ziren. Herri batzuetan baten bat hiltzen zenean sanjoan loreak erretzen ziren gelan, edo gorpua bera loreak egositako

urarekin garbitzen zen. Urtean zehar erre gabeko landareak hurrengo san Joan sua pizteko erabiltzen ziren. Sorta, edozein kasutan, derrigorrez erre behar zen.

Beste sorta batzuk etxe-aurre, ate eta leihoetan jartzen ziren, Aste Santuan bedeinkatzen zenaren moduan. Bezperan kentzen ziren aurreko urtekoak, eta berriak jartzen goizean. Lore-sorta berriek etxea eta etxekoak babesten zituzten sorgin, tximista, su eta gaixotasunetatik. Gazteek eliz ataria apaintzen zuten intxaurrondo- edo lizar-adarrekin, herriko etxe nagusiari egindako opari gisa.

Nafarroa aldean, ostera, eguzki-lorea jartzen dute, eguzkiaren ordezkariatzat dutelako. Lore hori sorgin eta espiritu txarren kontrako kutuna da, ganadua gaitzetatik libratzeko ere erabiltzen da. Artzainek erabili izan dute batez ere, txabolako ateetan jartzeko.

Zuberoan herritik kanpora beste nonbait batutako errekarriak fruta-arbola igarren adabuaren oinarrian jartzen ziren, hurrengo urtean erneko zirelako ustean.

Maitasun-gaua ere izan da Doniane gaua. Mutilek neskentzat sortak moztu eta haien ate-bentanetan jartzen zituzten. Nafarroan, kasurako, sua bera baino zabalago ibili da neskalagunei eta neskei mutilek gau-erronda eta kantuak egitea. Izan ere, san Joan gaua dantza, bainu, opari, erronda eta lore gaua izan da. Etxeetan lore-sortak jarri eta nesken etxe-atariak lorez estaltzen zituzten.



Herri bakoitzean gazteek egun hori aprobetxatzen zuten neska jakin batzuei gorrotoa erakusteko ere, mutil-laguna bertan behera uzteagatik, edo dantzaldian jaramonik ez egitearren, edo harroak zirelako... Halakoetan etxean jartzen zizkieten bestelako lore-sortak, gehien baten makal, alpapa, pikondoekin eginda eta zaldiren baten hezur nazkagarriekin.

Landareek ez ezik zuhaitzak ere garrantzi handia hartzen du udako ospakizunotan. Herri askotan lizar edo makal luze adargabea jartzen dute plazaren erdian edo elizaren aurrean. Berezko izena *mayo* da, jatorriz



San Joan haretxa etxe eta eraikin mota guztietan jartzen da atean, San Joan goizaldean

maiatzean jartzen zelako, eta halaxe egiten da herri askotan. Baina beste batzuetan san Joanetan jartzen da, eta euskaraz *donilatxa* (Doniane haretxa) edo *san juan haretxa* izena hartzen du.

Zuhaitza dagoen lekutik hartzen dute, aldez aurretik aukeratuta izaten da enbor luzeena eta artezena, batzuetan jabearen baimenik gabe ere. Enborra lorez eta landarez apaintzen dute eta puntan trapu zaharrez edo lastoz eginiko txotxongiloa jartzen dute. Beste herri batzuetan apaindu beharrean koipez igurzten dute eta kukaina egiteko erabiltzen da, goiko puntan ikurrina edo beste edozer jarrita. Enbor hori leku batzuetan erre egiten da eta beste batzuetan loreak sikatzen direnean kendu egiten da beste barik.

17. BESTE OHITURA BATZUK

Goizean lehenengo orduan eguzkia irteten ikustea zen beste errito bat jai honetan. Inoiz baino distiratsiago eta biribilago irteten da. Mendira joateko ohitura orokorra izan da. Adibidez, Zeanuritik Gorbeira joaten ziren, eta Aizkorriara ere inguruko herrietatik.

Hainbat esateratan jasota dago san Joan egunaren garrantzia:

San Juan goizean eguzkia dantzan ateratzen da.

Eguzkiak San Juanetan dantza.

San Juan Batista, San Juan Batista, urtean bi aldiz balitza!

San Juan ostiralez datorren urtea urte oso ona ala oso txarra izaten da.

Urteko egunik handienetakoa, eta aberatsenetakoa da jai, dantza, zezenketa, inauteri-itxurako panpin-dantza eta era guztietako ospakizunetan. Behin eguna igarota, jendea sendatuta eta sendotuta, uzta batzeari ekiteko moduan zegoen. Izan ere, urteko egunik luzeenak eta beroenak izanik, baserritar eta nekazarietatik urteko sasoirik gogorrenetakoa zen, belarrak moztu, garia jo, belarrak etxeratu... eta beste hainbat zeregin zeuzkaten eta.

Egun honetako ohiturekin amaitzeko, san Joan gauean ume txikiei etena edo sabel txikia sendatzeko egiten zen antzinako erritua aipatuko dugu. Horretarako gehienetan haritza edo artearen enborra erabiltzen zen. Ohikune honetan Juan izeneko gizon bik hartzen zuten parte. Euretako batek izaten zuen umea besoetan gauerdian erlojuak jo aurretik. Lehenengo danga entzuten zenean “Juanek uzten zaitu” esanez, bigarrenari ematen zion umea zuhaitzaren adar biren artetik edo aizkoraren bidez enborrari egindako irekiduratik. Bigarren gizonak “Juanek hartzen zaitu” esanez jasotzen zuen umea. Beste aldaera batean anaia bikiek izan behar zuten umea hartzen zutenak, “Eutsi, Juan!” eta “Ekarri, Juan!” esaten zuten. Ekintza hori behin eta berriz errepikatzen zuten kanpaiak amaitu arte. Gero adar biak edo zuhaitzean egindako irekidura lotzen eta ixten zuten. Bizirik irauten bazuen, haurra sendatu egiten zen; sikatuz gero, aldiz, ez.

18. SAN JOAN, ARTZAINEN ETA ARTALDEEN ZAINDARIA

Gorbeian, Diman, Ziortzan (Bizkaia) antzina artzainak San Joan egunean taberna batean elkartzen ziren, eta



17

Artzain-txabola Gorbeian. 1988

ardia jaten zuten. San Joan omen da artalde zaindaria, urteko egunik luzeena izanik, ardiak larrean bazkatzen egoteko denbora gehien daukaten eguna delako, aseeginak omen dira eta.

Egun horretan antzinatik datozen erritua edo ohikuneak egiten dituzte ganaduak babesteko.

Bernagoitian (Bizkaia) bezperan elkartu eta San Joan sua egiten zuten. Goizean lizarra eta baso-arrosekin arku moduko bat egin eta eskortako atean ipintzen zuten eta handik ardiei igaro eragin: gaixotasun eta kalte guztietatik libratzeko. Lizarra atearan alboetan eta garoa atarian jarri gero, txabola euren etxea zen eta. Lizar eta elorriarekin egindako gurutzak kortetan ere ipintzen dira.

Aiaran (Araban) arbola bat ebaki eta txabola-lekuetan, erdi-erdian, ipintzen zuten, artaldeak babesteko. Gorbeian (Bizkaian) ere ezaguna da.

Eugin (Nafarroa) gurutzea egiten zuten, sahats, arrosa, garoa... eta lastategian gordetzen zen, gurutzea gordeta zegoen belarraren gainean ipintzen zen eta belarra ere bedeinkatu egiten zen horrela.

19. SAN JOAN KANTAITA (URDIAIN, NAFARROA)

Hurrengo kantu hau oso ezaguna zen garai batean. Urdiainen, Doniane bezperan gabeko hamabietan emakumezkoak, beti taldean, gari-soroetara joaten ziren eta esaten zuten: “Orai arte belar, hemendik aurrera gari!”. Hori egin aurretik hurrengo kantua abesten zuten korruan jarrita San Joan ermitaren aurreko plazatxoan. Antzina batean suterik sute ibiltzen zirenean ere kantatzen zuten.

*Egun bai egun honek san Juan dirudi
ez da san Juan baina hala lonbra bedi.
Goazen san Juanera gaur arratsean
etorriko garela bihar goizean.*

*Goazen san Juanera berduratara
berduratara eta han egotera.
Juan nintzen Frantziara, etorri maiatzean
zalditxo urdinean astoaren gainean.*



*San Juango iturriaren ondotik
zazpi iturri urre-kainuetatik,
zortzigarrena metal zurietatik
zortzigarrena metal zurietatik.*

*San Juango iturrian dago ura berde
amurraitxo freskuak hantxe dirade,
lehenbiziko eskuak eta gero musua.
San Juango iturriaren freskoa!*

*Jesukristoren lehengusua da
Aita san Juan Bautista,
aingeruak dantzan dabilta,
dabilta baina dabilta,
San Juanen pozean dabilta!*

*Andra mutur maketsa
aingeruak dantzan dabilta,
dabilta baina dabilta,
San Juanen pozean dabilta!*

*San Juan garagarrilean
denbora galantean!
maizik eta garirik ez dagoenean
etxean!*

Beste kantu hau Otxandio, Legutiano eta Leintz-Gatzagan batutakoa da:

*San Juan bagilean
denpora ederrean,
hamalau atso tronpeta jotzen
motrailu baten ganean.*

Urran, urran, urran
San Juanetan
dantzan egingo dogu
ifar-airetan.

U, ju, ju,
San Juanera goaz gu.

Lirio lora ederra
jaio da bagilean
lora ederrez beterik dago
Pazkua-maiatzean.

Urran, urran, urran
San Juanetan
dantzan egingo dogu
ifar-airetan.

U, ju, ju,
San Juanera goaz gu.

Gure ortuan ginda-lorea
San Juanetako heldua,
San Juanak baino lehenago
gure usoak batua.

Urran, urran, urran
San Juanetan
dantzan egingo dogu
ifar-airetan.

U, ju, ju,
San Juanera goaz gu.

20. UDABERRI ETA UDAKO SANTUAK ETA JAIAK

Apiril-maiatzeko santuak batez ere ganaduaren eta soroen babesleak dira, gaixo zehatzak dituztenak zaintzen eta sendatzen dituztenak: San Lamberto (apirilak 16) nekazarien zaindaria; Santa Garazi eta San Toribio izotz, ekaitz eta txingorren kontrako babesle apartekoak; San Jorge (apirilak 23); San Marko (apirilak 25) soroetako izurrien kontrakoak, orduan egiten ziren errogatiba nagusiak; eta Santa Quiteria (maiatzak 22) amorruaren kontrakoa. Bakoitzak kalte edo eragin txarren baten kontrako babesa ematen du eta herri askotan dauzkate ermitak, irudiak eta abar.

Hala ere, halako asko galtzen joan dira edo esparru txikietara mugatzen San Isidro (maiatzak 15) indarra hartu ahala. Gaur egun santu honek eta bere eguneko jaiak batzen ditu nekazaritza eta abeltzaintzarekin zerikusia duten ezaugarri gehien-gehienak.



18

Urkiolako erromeria, 1993

San Isidrotako jai-ospakizunetan ohikoak dira oraindik ere ganadu-feriak, idi-probak, baratzeko generoen azokak eta orokorrean baserritarren eta nekazarien bizimoduarekin zerikusia duten jarduerak. Jaiegun hori ospatu eta ospatzen dute nekazarien kooperatibak sortu zirenetik bertako bazkideek. Askotan azokara joan eta ostean bazkaria egin izan dute.

San Antonio (ekainak 13) debozio handikoa dugu gure lurraldean. Frantziskotar honek galdutako gauzak bilatzen laguntzen du.

Urkiolako santutegia da San Antonio jaia handiroen ospatzen denetako bat. Urkiolako erromeriara herrialde guztietako jendea joaten izan da: Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroatik. Baserritar eta artzain giroko jendearentzat jai handia zen. Santu horrek nobio edo nobia bilatzeko fama ere badauka, hala jasota dago herri kopletan:

*Neskazaharrak joaten dira
San Antoniogana,
Santuari eskatzera
Senar on bana.*

*Santuak esaten dotse:
Buru arine,
Orain arte zer ein dozu
Orain aren ez.*

Nafarroan ere, Guembera joaten ziren ezkondu nahi zuten neska-mutilak, adreilua zapaldu eta urtearen barruan ezkonduko zirela esaten zen.

Ekainean San Joan (24) eta San Pedro (29) ospatzen dira ugarien gure inguruan. San Pedro arrantzale-kofradien

patroia da, eta askok daukate santu honen izena. Lekeition (Bizkaia) ohitura berezia dago egun horretan. Santua prozesioan ateratzen dute elizatik, eta portuan dagoen santuaren irudiaren aurretik igarotzean, santu-eramaleek irudia uretarantz botatzeko keinua egiten dute, arrantzan laguntzeko eskatzeko. *Kilin-kala* esaten zaio horri. Horren ostean *kaxarranka* dantza egiten da, hau da, dantzari batek kutxa baten gainean dantza egiten du, zortzi arrantzalek eusten diotela. Kaxarrankaren jatorria da arrantzaleen kofradiako maiordomoa aldatzea. Maiordomoak kofradiako kontuen ardura zeukan eta arrantzaleek aukeratzen zuten. San Pedro egunez bozketa egin ondoren, hurrengo egunean kofradiako ondasunak aurreko maiordomoaren etxetik hurrengoarenera eramaten zen, kutxa batean gordeta. Dantza etxe-aldaketa horretan egiten zen.

San Martzial (30) gora handiz ospatzen da Irunen. Jatorri militarreko jaia izan arren, gaur egun zibila da. Datak ere aldatu egin dira, irailetik ekainera, San Pedro egunera lehenengo eta hurrengora gero. San Martzial egunean herriko jendeak, auzoka elkartuta gutxi gorabehera, praka eta alkandora zuriak, jaka urdina eta korbata eta txapel gorriaz jantzita desfilea egiten du, tanborrak eta txilibituak joz. Goizean udaletxeko plazara heltzean jeneralak bandera hartu eta gauerarte konpainia batek eramango du. Zaldiak, tiroak, konpainia bakoitzeko kantinera bat... dira gainerako osagarriak. Alardea ez ezik, San Martzial ermitara joatea ere ohikoa da egun horretan.

Uztailean San Fermin (7) azpimarratuko dugu, Iruñeko jai nagusiak eta gure artean nazioartekoenak. Jaietako ohiko programetatik aparte, entzierroa nabarmendu behar da. Egunero goizean zezenek kale artean

prestatutako ibilbidea egiten dute eta jendeak karrera egiten du zezen-plazaraino. Horixe da jai hauen irudia, jendea jantzi zuriak eta gerriko eta zapi gorriak jantzita, eta zezenen aurretik arinetan. Lesakan ere ospe handia dute San Ferminek. Bertako ohituratzat dute, gainera, dantza bereziak egitea egun horretan. *Zubigainekoa* deritzana, Onin ibaiaren ertzetan, dantzatzen dute ezpatadantzariak, XV. mendean Lesakako auzoek sinaturiko bake-itunaren oroigarritzat.

Santuen jaietatik aparte, Erronkari (Nafarroa) eta Baretous (Bearn, Frantzia) haran mugakideek 1375etik hona urtero ospatzen dute uztailaren 13an Hiru Behien Zerga. Urte horretan epai batek biarnotarrei betiko ezarri zien urtero hiru behi ordaindu behar izatea Erronkariko larreak erabiltzeagatik. Harrezkero egiten da ordainketa hori.

Karmengo Ama (16) itsasoari lotuta dago bete-betean, horregatik kostako herri askotan ospatzen da. Ospakizunetan ere, itsasora irteerak egiten dituzte edo portu inguruetan egiten dira ekitaldietatik asko, Santurtzin adibidez.



Karmenetan itsasora ateratzen dira arrantzaleak.
Santurtzi, 1996

19



20

Ohikoa da Ama Birjinaren eta santuen irudiei kandelak piztea gurariak eskatzeko edo eskerrak emateko

Santa Marina (18); Santa Madalena egunean (22) Bermeok, Elantxobek eta Mundakak Izaro uhartearen jabetza zela eta, 1719ko uztailaren 22an izandako eztabaida gogoratzen dute. Jabetza Bermeo eta Mundaka artean banatuta zegoela eta liskar hari konponbide bat emateko estropada bat antolatu zuten, Elantxobe arbitro zela, uhartearen jabetza irabazleari emateko. Bermeok irabazi zuen eta ordutik aurrera, urtero, bermeotarrek itsas prozesio bat antolatzen dute uharteraino eta bertara iristen direnean teila bat botatzen dute uretara esanez “Honaino heltzen dira Bermeoko teilatuak”.

Santiago (25) bereziki gurtzen den santua da. Garain (Bizkaia), bere irudiaren aurrean, ezpata-dantza eta erregelak edo aureskua dantzatzen dituzte. Gasteizen ohitura da egun horretan berakatz-sortak salgai jartzea. Ez da ahaztu behar, gainera, Santiago bideak Euskal Herria zeharkatzen duela.

Santa Ana (26) egunez, Ordizian famatua da santaneroen aureskua, urtean zehar ezkondu diren bikoteek dantzatua.

Baionan Leoi Erregea bere gortearekin agertzen da udaletxeko balkoian jaiei hasiera emateko.

San Inazio (31) Bizkaiko eta Gipuzkoako patroia da, horregatik jaieguna izaten da. Horrez gainera, ohitura dago egun horretan hainbat menditara joateko eguna pasatzera, Gorbeia kasurako. Handiroen Azpeitian, santutegia dagoen herrian ospatzen da.



21

Erraldoiak eta buruhandiak oso erakargarriak dira jendearentzat

Abuztuan Ama Birjina Edurretakoa (5) Gasteizko jai nagusia da, Zeledon pertsonaia popularra San Migel plazan alde batetik bestera jaisten dela. Gaur egun Gasteizko Aste Nagusi bihurtuta daude jai honetako ospakizunak, hala ere, prozesio eta alborada eta halakoak gorde egin dituzte oraindik ere.

San Lorentzo (10) santu handia da gure artean.

Andre Mari (15) udako jairik handienetakoa da, herri asko eta askotan ospatzen da era batera edo bestera. Bilbon, Begoñako basilikan, tradizioa da bezpera gauzez Bizkaiko herri guztietatik oinez joatea eta goizeko lauretako meza entzun.

San Roke (16), San Bartolome (24); irailean San Antolin (2), Andre Mari Irailekoa (8), Guadalupeko Ama (8) Hondarribian Alardearekin ospatzen da. 1638an egun horretan frantziarrek hiria inguratu zutenean, Hogeita Hamar Urteko Gerran, Guadalupeko Amak askatzen lagundu zien eta ordutik urtero berritzen da eskerrak emateko botoa.

Andre Mari Arantzazukoa (9), Gipuzkoako patroia, urtero Oñatitik erromesaldia egiten da bere egunean.

Santa Kurutze (14), maiatzeko Santa Kurutzerekin batera, artzaintzat batez ere, baina nekazariarentzat orokorrean, udako sasoi bate delat adierazteko data da.



22

Agintariei edo omenduei ohorea egiteko dantzatzen da aureskua

San Mateo (21); San Migel (29) Aralarkoa dugu ezagunenetakoa, Teodosiori kateak askatu zizkiola eta santutegia eraiki zioten hark eta emazteak. Nafarroan eta Euskal Herri osoan ikurra da santutegi hori. Urtean zehar hainbat erromesaldi egiten dira Nafarroako herrietatik, eta urtean behin santua bera eramaten da beste herri batzuetara. Horrez gainera, San Migel Arretxinagakoa (Markina, Bizkaia) ezaguna da harri mirarizkoak dituelako elizaren barruan. Eta Iurretan izen handia dauka San Migeletako zortziko dantzak, koplak ere badituena. Hona errepertorioko batzuk, Azkuek *Euskalherriaren Yakintza* lanean batutakoak (IV. alea, 50. or.):


*Aita San Migel Iurretako
Zeru altuko lorea
Agura zaharrak dantzan ikusi
Ta hak egiten jok barrea.*

*Garaiko plazan otea lore
Ermuan asentzioa
Dantzan ikasi gura dabena
Barruetara beihoa.*

*Aita Juaniko, seme Periko
Zer dogu aparitako?
Orio-aza gozo-gozoa
Arto beroaz jateko.*

*Kazuelatxoan intxaur-saltsea
Txarra morkoan txunpletin
Eragin eta beti eragin
Atsoak bauke zer egin.*

Urriari lehenengo igandean, Errosarioko Amaren jaiaren inguruan, Elorriok (Bizkaia) “Errebonbiloen” alardea ospatzen du. Lepantoko borrokan jartzen diote ekitaldi honi jatorria, beste azalpen batzuk badaude ere. Dotore jantzitako hamabost gazte kaleetan zehar ibiltzen dira pauso militarrek emanez eta bolbora-salbak botaz. Alardearen ostean aureskua egiten dute herriko neskei eskainita.



23

Txistulariek egiten dute erromeria gure jai askotan

San Fausto (13) dela eta Arluzean (Araba) bada pasarte bitxia. San Faustora joaten ziren seme-alabarik eduki ezin zuten senar-emazteak, baina ez egun jakin batean, urtean zehar baino. Lleida inguruko santu nekazaria



dugu, hiltzean idatzita utzi zuen gorpua bere behorraren gainean jartzeko, eta horrela hainbat herri eta eskualde zeharkatu zituen. Mues (Nafarroa) igarotzean, harrika egin zioten antza, eta madarikazioa bota omen zien:

*Mués, Muesajas,
Casas nuevas “haráis”
Pero todas tendrán rajas.*

Bujandan sartzean, aldiz, behorra egarri zen eta ostiko batekin iturria sortu zuen. Oraindik ere San Faustoren iturria esaten zaio. Herrira heltzean, elizaren aurrean behorra gelditu zenean, gorpua jaitsi eta kristalezko ontzi batean utzi eta han gorde dira haren hondarrak.



24

Lagun taldeak kantuan ibiltzea ohikoa da gure herrietan

Esaten da erreginak ere joan zirela San Faustori familia eskatzera, adibidez María Luisa Parmakoa, María Isabel Braganzakoa eta Isabel II.a Espainiakoa.

Santuaren jaioterritik, Alguairetik, joan izan dira Bujandara haren gorpua non dagoen jakitera. Trukean, Bujandakoek bisita itzuli zieten 1940an.

Azken urteetan gure hiriburuetan Aste Nagusia egitea zabaldu da, hiriburu bakoitzean astebeteko jai sonatuak egiten direla. Iruñean hasten dira San Fermin ospatuz, hurrengo Baionako jaiak dira, Gasteizkoak gero, Donostiako Aste Nagusia hurrengo eta Bilbokoa azkenik. Aurrekontu eta jendetza handia mugitzen dute inguruan, eta jendeak oporretako programan sartzen ditu.

21. HERRIETAKO JAIK ETA OSPATZEKO MODUAK

Udaberri-udan ospatzen dira gaur egun herri eta auzo gehienetan urteko jai nagusiak. Santoralari erreparatuta, santu batzuen ospakizunak orokorrak dira beste batzuenak baino, eta esanahiaren aldetik ere alde dago batetik bestera. Edozein kasutan esan daiteke jai nagusiek eta gehienek motibo erlijiosoa dutela. Badira bestelakoak ere, esaterako, azokak, soldaduen desfileak, herrien mugariak berrikustea...



25

Lehenagoko erromeria

Jaiak herrien poza, alaitasuna ateratzeko berezko bidea dira, eta baita elkarte edo gizarte bakoitzaren nortasunaren erakuslerik onenetakoa ere. Jaien antolaketan, ospakizunetan, bazkarietan, kantu-dantzetan ageri dira herri baten barru-barruko baloreak eta izaera ondoen adierazten duten ezaugarriak.

Denborarekin jaien esanguran eta ospatzeko moduetan aldaketa handiak egin dira. Esate baterako, Asentsiotan, San Markotan eta kasuan-kasuan beste egun jakin batzuetan errogatibak egitea derrigorrezkoa zen garai batean. Etxe bakoitzetik batek gutxienez parte hartu behar zuen, eta sarritan penitentzia kutsua zeukaten. Horregatik hainbat jendeek ortozik egiten zuen ibilaldia. Halakoak apurka-apurka jai kutsua hartzen joan dira eta errogatiba izateari utzita, jai eta erromeria-egunak bihurtu ziren.

Aldaketen arteko bat da jaiak gero eta gehiago uda partean ospatzea, eta astegunetan barik asteburuan. Izan ere, udan egunak luzeagoak dira, sasoi hobea egoten da etxetik kanpora ibiltzeko, eta kontuan hartuta orain jende gehienak oporrak udan dauzkala garai egokiagoa da uda halako ospakizunetarako. Era berean, astegunez tokatzen diren jaiak asteburura aldatzeko joera ere gero eta handiagoa da.

Herriko jaiak egun apartekoak izan dira lehen eta orain ere badira, beste modu batera izan arren. Aldi batean familia eta etxeakoak batzeko egunak ziren. Etxetik kanpora bizi ziren senideak etxera batzen ziren konbidatuta, bazkari berezia egiteko. Batzuetan egun bat baino gehiago egiten zuten konbidatuek etxean, gainera.



26

Dantza-taldeetan nahiz bakarka, gure dantzek leku handia daukate jaietan

Egun horiek izan dira sarri urtean behin etxeari garbi-ikuzi sakona egiteko okasioa. Hormak karez zuritu, sakonago garbitu...



27

Kostako herrietan ohitura handia dago kukañan egiteko, makilaren muturreraino oinez joatea

Antolaketari begira ere egin dira aldaketak. Garaien arabera gazte taldeak elkartzen izan dira bai gastuetarako dirua batzeko, bai ekintzak eta erromeriak antolatzeko. Halako talde berezkoen ordeztu gero eta gehiago egiten dira jai-batzordeak, eta udalek eurek beren gain hartu dute bai aurrekontuari erantzuteko ardura bai antolatzea ere.

Jaiak ospatzeko ekitaldi erlijiosoak eta profanoak egiten dira. Erlijiosoak abadeek eta eliztar laguntzaileek antolatzen dituzte. Horretan sartzen dira elizkizunak, prozesioak, Salbea kantatzea. Nahiko normala izan da herriko agintariak elizkizunetan aurrendari parte hartzea. Denborarekin banatzen joan dira elizako jaiak eta zibilak, nahiz eta oraindik ere halakoak geratzen diren.

Jaietako programetan jarduera batzuk nahiko orokorrak dira, bai leku batetik bestera bai denboran zehar. Beste batzuk, aldiz, aldian aldiko modetara egokitzen dira.

Jaiegunetan dantza tradizionalak egiteko ohitura egon da, sarritan parte hartzaileak bereziak direla. Urtean ezkonduetakoak, urteko kintoak, udal-agintariak... kasuan-kasuan batek dantza egiten du eta dantza jakinak, gainera.

Ekitaldirik tradizionalenen artean, bai erakargarriak direlako bai denboran iraun dutelako, ezagunenak aipatuko ditugu.

Kirolarekin zerikusia dutenak: pilota-partiduak, taldeen arteko futbol, futbito eta gainerako kirolak, herri-kirolak (aizkolariak, harri-jasotzaileak, gizon-probak, sokatira...), txirrindulari-lasterketak.

Animaliekin zerikusia dutenak: zezenak, sokamuturra, asto-probak, idi-probak, antzar-eguna (Lekeitio) eta



28

Asto-probak 60ko harmarkadan

ahate-jokoa (Sara) (batean antzara portuan jartzen da eta txalupan doanak harrapatu eta lepoa kendu behar dio, bestean ahatea bidearen gainean jarrita bi zuhaitzi lotuta, zaldi gainekoak esku batekin heldu eta lepoa kendu behar dio), txerria harrapatzea.

Sukaldaritza edo gastronomiarekin zerikusia dutenak: tortilla-, bakailo-, sukalki-, paella-txapelketak, herri-bazkariak, txokolatadak.



29

Epailleek zehatz aztertzen dituzte lapikoak sukaldaritza leihaketat

Musikarekin zerikusia dutenak: musika-taldeen kontzertuak, abesbatzen ekitaldiak, umeen eta nagusien tanborradak, kalejirak, kantu-, dantza- eta play back-lehiaketak, kuadrillen eta karrozen desfileak.

Ikuskizunak: antzerkia, umeentzako saioak, zinea.

Suarekin zerikusia dutenak: plater-tiroa, uso-tiroa, su artifizialak, suzko zezena.

Umeentzako jolasak, buruhandiak, barrakak, txurro-saltzaileak.

Azken berrogeita hamar urteetan ohikoa bihurtu da lagun-taldeak batzea, berdin jantzita ibiltzea, sarritan musika-konpartsa eta guzti eta taldeek eurek giroa animatzea eta baita jarduera batzuk eurek egitea ere.

Auzoetan egiten diren jaiei begira, hainbat ospakizun bertakoekin batera egiten dira. Ermita eta leku txikietako jaietan, maiordomoak, kofradiakoak edo sakristauak dauka garbitu, prestatu eta atontzeko ardura. Horrez gainera, kopaua eskaintzen zaie hara joandakoei. Beste batzuetan ohikoa da herri-bazkaria egitea, edo bakoitzak etxetik eroanda denek landa edo leku zabal batean jatea erromeria giroan.





BIBLIOGRAFIA

- CARO BAROJA, Julio. *La estación de amor. Fiestas populares de mayo a San Juan* (La otra historia de España; 3), Madrid, Taurus, 1979.
- CARO BAROJA, Julio. *Sobre la religión antigua y el calendario del pueblo vasco* (Estudios Vascos; 1), San Sebastián, Txertoa, 1980.
- CARO BAROJA, Julio. *El estío festivo. Fiestas populares del verano* (La otra historia de España; 10), Madrid, Taurus, 1984.
- EGURCEGUI ARRÓNIZ, Jesús. *Arluzea. Apuntes etnográficos de un pueblo alavés (Ohitura Estudios de etnografía alavesa, nº 9)*, Gasteiz, Arabako Foru Aldundia, 2002.
- ETNIKER EUSKALERRIA. *Ritos del nacimiento al matrimonio en Vasconia* (Atlas etnográfico de Vasconia; 9). Bilbao: Etniker Euskalerrria; Gasteiz: Eusko Jaurlaritza; Pamplona: Gobierno de Navarra, 1998.
- ETNIKER EUSKALERRIA, *La alimentación doméstica en Vasconia* (Atlas etnográfico de Vasconia), Bilbao, Etniker Euskalerrria, 1999.
- JIMENO JURIO, José M^a. *Calendario festivo. I. Celebraciones de las cuatro estaciones. Primavera-verano* (Obras completas; 51), Pamiela, Udalbide, Euskara Kultur Elkargoa, 2006.
- KALZAKORTA, Javier. *Dantza-kopla zaharrak*. Bilbao, Labayru Ikastegia-BBK Fundazioa, 2007.
- RUIZ DE LARRAMENDI, Jesús. *Salvatierra-Agurain. Destellos de un siglo de historia (Ohitura Estudios de etnografía alavesa, nº 6)*, Gasteiz, Arabako Foru Aldundia, 1994.
- ZUFIAURRE GOYA, José. *Beasaini buruzko monografia etnografikoa (Beasaingo paperak. Beasaingo Udalaren Aldizkaria, 7 zenb.)*, Beasain, 1998.





IRUDIEN ITURRIAK

Labayru Ikastegiko liburutegikoak: 1, 2, 3.

Labayru Ikastegiko irudi-artxibokoak:

Don Domingo Zuluaga: 5.

Izaskun Agirre: 6, 8.

Miguel Sabino Díaz. *Euskalerriko Atlas Etnografikoa*: 9.

Felipe Manterola: 10, 25.

Euskalerriko Atlas Etnografikoa. 7, 11.

Jose Zufiaurre. *Euskalerriko Atlas Etnografikoa*: 13, 15.

Akaitze Kamiruaga: 14, 16, 20, 22, 23, 26, 27, 29.

Ander Manterola: 17.

Jose Ignacio García Muñoz: 18.

Karmelo Etxenagusia: 19.

Miren Begoñe Abeal: 28.

Erandioko Udala: Juan Gómez: 21, 24.

Liburuetatik hartutakoak:

RICARDO DOLIWA “EL ALEMÁN”. *Gerraosteko argazkiak*. Durangoko Arte eta Historia Museoa. Durangoko Udala, 2006: 4.

JOSÉ MARÍA JIMENO JURIO. *Calendario festivo primavera*. Panorama, nº 15. Gobierno de Navarra, 1990. Argazkia: JOSÉ LUIS LARRIÓN ETA ENRIQUE PIMOULIER: 12.

EUSKARA MINTZAGAI

1. Euskararen geografia historikoa
2. Ahozko hitzetatik idatzietara
3. Euskal Herriko Prentsa:
XVIII. mendetik 1945era
4. Euskara eta euskalkiak
5. Herri literatura
6. Euskarak erakutsi koloreak ikusten
7. Gure eskola-liburuak
8. Belartzetik ihartzera



www.euskara.euskadi.net

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

ISBN: 978-84-457-3164-2



9 788445 731642